

**ESKUBALOIA.** Etxekoen nagusitasuna, argia

## Asobal Kopan izateko pauso handia eman du Portlandek, Alcobendas irabazita

<b>PORTLAND</b>	<b>31</b>
<b>ALCOBENDAS</b>	<b>20</b>

**Portland San Antonio:** Rivero, Mainer (2), Ortigosa (4,3p), Calby (1), Jiovanovic (1), Martin (7) eta Juantxo (3)—hasierako zazpikoa— Malumbres, Iakimovix (4), Urdiales (2), Garralda (2), Beuchler (2), Richardson (1) eta Ambros (2)

**Alcobendas:** Martinez, Olalla (-), Kloske (1), Epeldegi (2), Suarez (2), Garcia (2) eta Oliveros (2)—hasierako zazpikoa— Cruz, Marquez (6, 5p), Kajganic (2), Cjutura (1), Sanchez (2) eta Vigo.

**Markagailua:** 2-2, 5-2, 8-4, 11-7, 13-8, 14-11, 17-13, 19-15, 23-17, 26-18, 29-19 eta 31-20.

**Epaileak:** Elkano eta Belloso. Bi minutu kanporatuak: Rivero, Juancho Portlande aldetik, eta Kajganic Alcobendasen aldetik.

Erredakzioa | **IRUÑA**

Asobal Liga jokatzeko eta Ligako sailkapeneko aurreneko postuetan jarraitzeko aurrerapausoa eman zuen atzo Portland San Antoniok, Alcobendas taldeari 31-20 irabazi ondoren. Iruñeko taldeak ez zuen inolako arazorik izan Madrilgo taldea mendean hartzeko, eta sailkapenean bi taldeen artean dagoen alde handia agerian geratu zen pista gainean.

Partida oso orekatua hasi zen, eta lehen minutu horie-

tan Alcobendas jarri zen aurretik, 1-2. Jokalari nafarrek, hala ere, defentsako eta erasoko jokoa hobetu zuten, eta markagailuari buelta eman zioten, 6-0eko partziala lortuta (7-12). Portland jaun eta jabe zen, baina jokalaria nafarrek ez zuten lortzen Madrilgo taldea atzean utzi eta partida erabakitzea. Horrela. Portlanden aldeko 14-11ko emaitzarekin iritsi ziren bi taldeak atsedendira.

Bigarren zatian, aldiz, lehen zatian ezinezkoa izan zitzaiona lortu zuen Portlandek: partida erabakitzeko gol errenta nahikoa lortzea. Lan horretan Iñaki Malumbres atezainaren eta Alberto Martin albokoaren lana erabakigarria izan zen. Alberto Suarez Alcobendasko entrenatzailea nafarren suspertzea mozten saiatu zen, hainbat hutsarte eskatuta, baina bere asmoak ezerezean geratu ziren.

### Barakaldok 32-19 galdu zuen Altearen aurka

Barakaldok, aldiz, ezin izan zuen ezustekoa eman eta espero zen bezala, Altearen aurka galdu zuen, 32-19. Jokalari bizkaitarrek partida nahiko eskasa egin zuten, eta jokalaria valentziarren aurrean ezinean aritu ziren.

**SASKIBALOIA.** Mottolak azken partida jokatu du Baskoniarekin

## Baskoniak adoreari esker lortu nahi du garaipena

Saskipean huts handia du Gasteizko taldeak gaurko partidarako

Jon Rejado | **GASTEIZ**

Krisi larri batean murgilduta dagoela hartuko du Maccabiren kontrako partida Tau Baskoniak gaur gauean. Hala nola, Israelerako talde adierazgarriaren kontrako partida bigarren lerro batean gelditu da asteen zehar Luis Scolaren lesioa, eta Hanno Mottolak taldea utziko duela jakin ostean. Dena den, eta Ivanovicek zuzentzen dituen taldeei dagokien bezala azken unera arte borrokatzeko asmoekin kantxaratuko da Arabako taldea.

Israeldarren aurka Tau Baskoniako jokalaria bakoitzak orain arte izan ez duen erantzukizuna hartu beharko du, batez ere saskipeko jokalariek. Pentsatzekoa da Mottolak gaurko partidaren minutu asko jokatu beharko litzekela, baina ezin da jakin pibotaren jarrera zein izango den. Horregatik Griffithek eta Philippek kontu handiz jokatu beharko dute, eta gainointzeko jokalarien laguntza ezinbestekoa izango da errebotek ondo lortzeko jokalaria handiz betetako talde bati aurre egiteko.

Dena den, Maccabiren kontrako partida zailtasun handikoa izango zela argi dago, Scolaren lesioa eta Mottolaren agurra gertatuko ez balira ere. David Blattek entrenatzen duen taldeak ezohiko postu bat betetzen du Euroligako sailkapenean —bosgarrena da hiru partida irabazi eta lau galduta—. Jokatzaren dituen txapelketa guztien buruan egotera ohituta, israeldarrek Euroligan aurrera egiteko aukeren ehuneko handi bat dute gaur jokoan; etxean beste partida bat galduz gero, azken sei jardunaldietan huts bakar bat ere egin gabe jokatu beharko bait luke Maccabik.

### Maccabi- Tau Baskonia

**Txapelketa:** Euroligako hasierako ligako 8. jardunaldia.

**Sailkapena:** Maccabi Tel Aviv 5. (3 irabazi-4 galdu); Tau Baskonia 1. (5 irabazi-2 galdu).

**Maccabi Tel Aviv:** Lior Lubin, Quincy Lewis, Derrick Sharp, Nikola Vujicic, Marcus Goree, Gur Shlef, Tal Burstein, Yotam Halperin, Yoav Saffar, David Bluthenthal, Beno Udrih, Huseyin Besok..

**Tau Baskonia:** Jerome Allen, Jose Manuel Calderon, Edu Hernandez, Sergi Vidal, Leandro Palladino, Laurent Foirest, Andres Nocioni, Bill Philip, Hanno Mottola, Rashard Griffith.

**Tokia:** Yad Eliyau (Tel Aviv).

**Ordua:** 20:00etan (ETB 1).



ANDREU OLIVE / EFE

Mottola (13), Taurekin jokatu duen partidaren batean. Gaur du azkena.

### HITZARMENA

## Tauk 850 mila euro jasoko ditu Aldunditik aurtengo denboraldian

Aurtengo denboraldirako hitzarmen sinatu dute dagoeneko Josean Kerejeta Tau Baskoniako presidentek eta Ramon Rabanera Arabako Aldun Nagusiak. Hitzarmen horren arabera Arabako Foru Aldundiak 841.417 euro emango dizkio Tau Baskoniari, eta Gasteizko taldeak publizitate eta sustapen ekintzetan lagunduko dio, lagunarteko partidak prestatu, eta umeekin lan egin haurrentzako kirol eskoletan.

Josean Kerejeta Tau Baskoniako presidentek onartu zuen hitzarmenarekin lortutako diru kopurua aurtengo aurrekontuaren %8,5a dela. Hortaz, laguntza ekonomiko garrantzitsua lortu du Gasteizko taldeak aurtengo denboraldirako. Hitzarmen horri 1999. urtean eman zitzaion hasiera, eta etorkizunean luzatuko dela ematen du. Hala nola, Ramon Rabanerak datorren urtearen hasieran lau urtetarako hitzarmen a lantzen hasiko direla aurreratutako, hau da, 2007. urtera arteko hitzarmena.

# ABRAHAM OLANORI

## omenaldia

### Tolosaldeak

Abenduaren 15ean, Tolosan eta Anoetan

**ABENDUAK 15 igandea**

- 10:15:** Tolosa-Anoeta-Tolosa bizikleta marxa herrikoaren irteera. Txirindulari profesionalekin, Abraham Olano buruan dela. Irteera, Olarrainen. Anoetan 10:45ean, plazan. Helmuga, San Frantziskon.
- 12:15:** Proba: Neskak, Jubenilak eta Kadeteak. Tolosako zirkuituan.
- 13:30:** Proba: Profesionalak eta Afizionatuak.
- 13:30:** Abraham Olanori omenaldia podiumean.

**Antolatzaileak:** E.A. LAN, egunero

Laguntzaileak: Tolosako Udalak, Anoetako Udalak, Oñate, E.E. Iratzi, Eibar, eta TEF-CIT.